




Adunako erdigunea aldatu egingo dute laster hasiko diren herri lanek

LANAK ▶ Errepidearen zati bat oinezkoentzat moldatu eta bi biribilune berri egingo dituzte ▶ 4



Adunako plazan, eliza eta aterpetxearen artean, izango da aldaketa nagusiarena. IMANOL GARCIA



IÑIGO TERRADILLOS

Bizikleta festa izan dute ikasleek Eskolaren Astean

LIZARTZA ▶ Helduenek bizikleta irteera egin zuten eta txikiak berriz, oka bizikleta jolasean aritu ziren ▶ 6

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **MAITE Estetikako Zentru Integralean BALLANCER** presoterapiarako 3 saio zozketatuko ditugu



ARETO FUTBOLA ▶

Aralar-Boxnatura, ligako txapeldun

Jubenil mailako jokalariek azken partida jokatu aurretik lortu dute liga

I. ETXEBESTE

Aralar-Boxnatura areto futbol taldea ligako txapeldun izan da aurreten, Oñatiko Aloña Mendi eta Donostiako Perfumerias Rizos taldeen aurretik; Ibarrako Lauburu laugarren geratu da sailkapen orokorrean.

Tolosako ikastetxe ezberdinetako —gehienak, Hirukidekoak— ikasle lagun-talde batek osatutakoa da Aralar-Boxnatura taldea, eta iaz hasi ziren areto futboleant: jubencil maila-

ko ligan hirugarren geratu ziren, eta Gipuzkoako Kopa irabazi zuten. Denboraldi hone-tan erraz lortu dute txapela, eta azken partidua jokatzerao baze-kiten jakin liga irabazia zute-la. Partidu bakarra galdu dute denboraldi osoan: 180 gol sar-tu dituzte guztira eta 42 egin dizkiete haiei. Hala, 19 partidu-tan 54 puntu lortu dituzte.

«Uzturpe kiroldegian entre-natzen dugu, eta futbola ikara-garri atsegin dugun mutil tal-dea gara», esan dute Aralar-

Boxnatura osatzen dutenek: «Dugun diru apurra baloia-k, zapatilak, fitxak... erosteko era-biltzen dugu».

Bada liga irabazita, Probin-tzien Arteko Txapelketan har-tuko dute parte aurrerantzean Bizkaiko, Arabako eta Nafarro-ako jubencil mailako txapeldu-nen kontra. Lan ona eginez ge-ro, baliteke Aralar-Boxnatura-ko jokalariek gazteek ekainean Pontevedran (Galizia) izango den Espainiako Txapelketan aritzea. Kontuak kontu, gustura



Aralar-Boxnatura taldea osatzen duten jubencil mailako jokalariek. HITZA

dira tolosarrak orain arte egin-dako lanarekin, eta hemendik aurrera ildo beretik ariko dire-la iragarri dute.

Jesus Mari entrenatzaileare-kin batera, Axier Agirrezaba-

lak, Sergio Sorrosalek, Iñigo Bellosok, Erik Aguilarrak, Mi-kel Lizarrak, Joseba Illunbek, Ion Artolak, Imanol Landak, Iñaki Barriolak eta Yulen Men-dizabalek osatzen dute taldea.

DANTZA ▶

«Ohiko dantzatik jaiotakoa»

Argia dantzari taldeak 'Pas de Basque' ikuskizuna eskainiko du bihar Leidorren

IRATXE ETXEBESTE

Ondare tradizionalaren sustraieratik abiatu, eta, modu erabat garaikide-an loratzen den etorkizuneko euskal dantzen ereduaren bila-ketan, urrats berri bat» omen da Juan Antonio Urbeltzen eta Argia dantzari taldearen azken ikuskizuna. *Pas de Basque* sor-tu dutenek, behinik behin, ha-laxe deskribatu dute lan ber-ria: «Euskal dantzen alorre-an mugarri bat izaten da Juan A. Urbeltzen ikuskizun bakoitza, eta ikusmin handia sortzen du, ezaguna delako bere emanaldien kalitatea eta tradizioan inspiratzerakoan erakusten duen zorrozatasuna. Proposa-menaren ausardiagatik ere bada mugarri: lehen kolpean eragiten duen hariduraren ondoren, kopiatuak izaten baitira han eta hemen, eta euskal ko-reografiaren errepertorioarako funtsezko ekarpen bilakatzen dira». Horren adibide izan dira *Zortziko* (1988), *Alakiketan* (1991) eta *Kondharian* (1997).

«Brikolaje lan xaloa» da *Pas de Basque*, eta Urbeltzek emozioa, erritmoa, keinua, musika eta lilura bezalako lanabesak erabiltzeko duen «maisutasu-

na» erakusten du ikuskizun horretan ere. Hiru koreografia biltzen ditu lan berriak, «tradi-zioetik etorkizunera, lotsagabe-ki» begiratzen duten hiru pro-posamen: desafio-dantzak, pa-tuaren dantzak eta Inauteria.

Banakako dantzaren baitan «oso gai bereziak dira, Argia taldekoen hitzetan, dantzarien arteko desafio-dantzak; beren erroa, berriz, taldearekin na-hastea eta desegitea. «Bizkaiko Berriz herriko Biñango zaha-rretik hartu ditugu Béla Barto-koek Balkanetan bulgariar erritmo izenarekin aztertu zi-tuen herrenkako erritmoak. Doinu interesgarri horretan, dantza bihurtzen da mezetako *kyrie*-a».

Ospakizunetan zinta-dantza-rekin dantzatzeko dira maiz dantza tradizionalak; patuaren dantzak. Zinta-dantza, bada, patuaren alegoria bat da. «Er-diko zutoinak zintak eusten di-tu gainean, eta txirikordatu egingo dira patuaren irudi gi-sa. Erdiko zutoina Bizitzaren Zuhaitza bezalakoa da, zinten bidez, dantzariak bertara lo-zen diren ardatza; azken hori-erik zilborrestea besterik ez dira». Aldizkako gurutzatze-kin beren patua osatzen dute

Bihar eskainiko dute *Pas de Basque* ikuskizuna Leidorren. HITZA

dantzariak, eta bizitzaren eta zilborrestearen elkarketa, eta...

«Branlearekin irekitzen da Inauteria, eta jarraian agertzen da, egungo dantzaren gako gi-sa, Zamaltzainak buhamesekin edo ijitoekin duen harreman galdua. Ondoren, bi khauter taldek eta bohaumeek zalditxoaren heriotzaren eta berpiz-kundearen parodia egiten du-te, dantzen eta lasterketen ero-menaren erdian. Buhamesen dantza dotoreak, zuberotar ba-rroko era garbieneoak, goda-let-dantza ezagunenari egiten dio bide, eta dantzariak eda-lontziarekin duen banakako egingo dira proposamenen imen-tal honen amaiera ona da».

Juan A. Urbeltz berak zera dio *Pas de Basque*-ren inguru-an: «Urrun dago Etienne Jouyk *L'ermite en province* idatzen zueneko garaia; bertan Noverre eta Dauverbalek gure

bordari behenafarrek eta la-purtarrek dantzatzeko zuten interesari buruz idatzen zuten. Hala eta guztiz ere, nahiz eta egoera kaltegarrietan mol-datu behar izaten duten, orain-goiz euskal dantzek errealitate kultural izaten jarraitzen dute. Lan berri honekin, iritzi oroko-rrera aurkezten dugu ohiko dantzatik jaiotako ikuskizuna, keinuan kalitatea bilatzen due-na, pausoan, jautsian, arabes-koan edo oinez ibiltze hutsean dotorezia eta indarra, instru-mentu-interpretazio bertute-tsu batekin esna amets egitea ahalbidetzen diguna».

Bihar gauean eskainiko du Argia dantzari taldeak *Pas de Basque* ikuskizun berria Tolo-san. Leidor aretoan izango da, 22:30etik aurrera. Sarrerak salgai dira Kultur Etxean 8 eu-rotan; Gazte Txartelarekin, 6.

'PAS DE BASQUE' ▶

Juan A. Urbeltzen *Pas de Basque* ikuskizun berriko hainbat xehetasun:

TALDEA

40 dantzari. «Tokian tokiko tradizioei eusten ibilbide sendoa eta dantzarien formazioan zorrozatasuna» erakutsi duten zenbait dantza taldeetatik hartutako 40 dantzari osatzen dute taldea: Donostiako Argia, Añorgako Arkaitz, Elgoibarko Haritz eta Eibarko Kezka taldeetako dantzariak dira.

Maisuak. Argia-ko Iñaki Arregiri, Fernando Ariztizabali eta Jexu Larreari esker, dantzatzerakoan erakusten duten «distiragatik eta tradizioko dantzakera desberdinetara egokitze-ko duten gaitasunagatik» nabarmetzen dira dantzariak.

Formazio garaikidea. Ana Ramiroren gidaritzapean formazio garaikidea duten hiru dantzari borobiltzen dute dantzarien taldea.

Musikariak. «Dantzak hegan egiten du» Marian Arregi zuzentzen duen «musikari tradizionalen talde gartsuak jotako doinu sorginduen» erritmoa. Musika moldaketak Marian Arregirenak eta Mikel Urbeltzenak dira.

IKUSKIZUNA

Hiru ardatz. Patuaren dantzek, desafio-dantzek eta Inauteriak osatzen dute *Pas de Basque*; «aldaketei eta iradokizunei irekita» dagoen ikuskizun berria.

MUGIKORTASUNA ▶

Egunez etenik gabeko zerbitzua eskainiko du herribusak

Zenbait berrikuntza onartu ditu Udalak; dagoeneko, autobusa egunean lau aldiz iristen da lurreamendi egoitzaraino



Bigarren linea desagertu egingo da, eta ibilbide bakarra ezarriko da hemendik aurrera. INIGO TERRADILLOS

LEIRE MONTES

Tolosako herribusen zerbitzua etenik gabekoa izango da egunean zehar, eta ordu erdiroko maiztasuna izango du aurrerantzean. Udalak erabaki hori onartu du berriki egindako udalbatzarrean, jarduera hori kontratatzeke lehiaketaren baldintza-orrietan jasotzen denaren arabera. Zenbait berrikuntza ere onartu dituzte.

Lehiaketa baldintzek diotenez, lanegunetan 07:30etik 21:00etara ibiliko da herribusa, eta larunbatetan 08:30etik 21:30era. Abuztuan ere ordutegi bera mantenduko dute.

Bestalde, joan den asteleheneetik hasita eta aurrerantzean ibilbide bakarrean egingo da orain arte bitan egiten zena. Ibilbide berriak, gainera, aldaketa txikiren bat izango du: lurreamendi Egoitzaraino joango da herribusa, bi aldiz goizean —10:00etan eta 12:30etan iriteten dira autobusak— eta beste bi arratsaldean —15:30ean eta 19:00etan—. Udalaren esanetan, «egoitza horretan bizi diren gizon-emakumei eta senitartekoei zerbitzu egokia eskaintzea da helburua».

Udalak onarturiko lehiaketaren oinarriek ezartzen dutenez, herriko garraio zerbitzua- ren esleipenak hamar urtez iraungo du, eta beste bost urte gehiago luzatzeko aukera izango da.

Zerbitzua eskainiko duen ibilgailua berria izango da, eta irisgarritasun arau guztiak bete beharko ditu; hau da, ezintasunen bat duten pertsonen, eta ume-kotxe eta txirringoen sarbidea errazten duten ezaugarriekin horniturik egongo da autobusa. Era berean, motorrak biodiesel erregaia kontsumitzeko prestatuta egon be-

harko du ibilgailuak; berriki agertu da erregai hau, eta orain arte erabiltzen zen gasoilak baino askoz gutxiago kontsumitzen du.

«Hobekuntza hauek guztiak Tolosako Udalak bertako hiritarren beharrei erantzuteko egiten duen ahaleginaren parte bat besterik ez dira, Ingurumen Batzordeak, Mugikortasun Mahaia eta Agenda 21 Eskola Foroak herritarren parte-hartze garrantzitsuarekin egindako lanean azpimarratu diren beharrak baitira», azaldu dute.

Herriko garraioaren zerbitzu publikoa kontratatzeke lehiaketa hau onartzearekin batera, joan den 2003ko abenduaren proba gisa abian jarri zen ekimena normalizatu nahi da. Izan ere, «herritarren artean arrakasta itzela» izan zuen, Udalaren iritziz. Azaldu dutenez, 2005eko lehen hiruhilabetearen jasotako datuen arabera, 14.000 bidaiari erabilten dute hilerro herribusa.

«Ibilgailu pribatuaren ordez, autobus publikoa erabiltzera bultzatu eta areagotu» nahi du Udalak, «era honetan, hiritarren bizi-kalitatea hobetzen delako». Gainera, Joxelu Andueza, Agenda 21 egitasmoaren, Herritarren Parte-hartze eta Ingurumen zinegotziaren abuz, «garraio publikoa herriko Mugikortasun Planaren zutarrrietako bat da».

BERRIKUNTZAK ▶

Azken udalbatzarrean, herribusaren zerbitzurako zenbait berrikuntza eta jarduera hori kontratatzeke lehiaketaren baldintzak onartu ditu Udalak. Hauek dira aldaketa batzuk:

Ordutegia. 07:30-21:00 lanegunetan, 08:30-21:30 larunbatetan.

Abuztua. Ordutegi bera mantenduko dute.

Ibilbideak. Bakarra, bi linea izan ordez.

lurreamendi. Egoitzaraino joango da autobusa, goizean bitan (10:00 eta 12:30), eta arratsaldean beste bitan (15:30 eta 19:30).

Autobusaren ezaugarriak. Ibilgailu berria izango da, irisgarritasun arau guztiak beteko ditu, eta motorrak biodiesel erregaia kontsumituko du.

OHARRA ▶

Argindar mozketak egingo ditu Tolargik

«Bezeroei eskaintako zerbitzua hobetzeko lanak direla eta», hurrengo egunotan argindar mozketak egingo dituela jakinarazi du Tolargik. Hilaren 9an, astelehena, Poeta Lizardi, 2 eta Gudari, 2 kaleetan moztuko du argindarra, 08:15etik 11:30era. Bestalde, hilaren 16an, astelehena, Korreo kalean egingo du mozketa, 2, 4, 6, 8, 10 eta 18 zenbakietan zehazki, 08:15etik 12:30era.

MUSIKA ▶

Aldaketak Bonbereneako kontzertuetan

Etzirako Bonbereneako antolatutako kontzertuetan zenbait aldaketa izan dira. Hasiera batean, Bartzelonako Ainara Legardon zen josteko etxean, baina emanaldia bertan behera geratu da. Haren lekuan, Bartzelonako Nueva Vulcano eta No More Lies taldeek eskainiko dute kontzertua, egun berean, larunbatean, 22:30ean.

MUSIKA ▶

Edu 'Manazas', bihar, Fronton kafetegian

Edu *Manazas*-ek —Edu *Big Hands* bezala ere aski ezaguna da— kontzertua eskainiko du bihar, 23:30ean, Fronton kafetegian. Madrildar hau artista da blues musikan; 16-17 urterekin egin zuen topo estilo horrekin. Gitarra bikain menderatzen du, eta ahots indartsua du. Bakarkako emanaldia eskainiko du Tolosan. Sarrera doakoa da.



Edu *Big Hands*. HITZA

LEHIAKETA ▶

Txinpartako pintura lehiaketan izen-ematea

Bere 75. urteurrena dela eta, ekitaldi ugari antolatu ditu Txinparta elkarteak. Udala- ren eta Kutxaren laguntzarekin, Felix Yarzaren oroimenezko pintura lehiaketa ere prestatu du, sanjoanarako. *Tolosako Alde Zaharra* izango da gaia. Dagoeneko, Kultur Etxean eta Txinparta elkartearen bertan eman daiteke izena; baita lehiaketaren oinarrien berri jaso ere.

MUSIKA ▶

Musika Eskolan aurrematrikula egiteko

Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolan zabaldu dute dagoeneko 2005-2006 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea. Aurrematrikula hau ikastetxe horretan aritu nahi dutenei dago zuzenduta, bai lehendik dabiltzanei bai berrientzat. Hilaren 31 arte eman daiteke izena, Musika Eskolan bertan (Pablo Gorosabel), asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara.

GAZTERIA ▶

'Gazteak eta lana', gaur, II. Hitzaldi Zikloetan

Udaleko Gazteria sailak eta Gaztegunek antolatutako II. Hitzaldi Zikloen baitan, ekonomia inguruko bigarren hitzaldia izango da gaur. Leire Otaegi eta Teresa Zeberio Tolosaldea Garatzen-eko Lanbide-Langai orientazio zerbitzuko teknikariak *Gazteak eta lana* izeneko solasaldia eskainiko dute, 20:00etan. Kultur Etxean. Bihar 2. zikloa hasiko da: emantzipazioa.

AMEZKETA ▶

Ariketa fisikoari buruz hitzaldia adinekoentzat

Hurkoak gaur hitzaldi bat antolatu du Aula polibalantean 16:00etan. Hizlaria Eztitxu Unzain fisioterapeuta izango da. Bereziki adineko pertsoneri zuzendua izango da hitzaldia eta jorratuko den gaia *Ariketa fisikoaren onurak eguneroko bizitzan*. Eta honela datorren astetik aurrera ostegunero izango diren gimnasia saioei hasiera emango zaie.

ANOETA ▶

Bilbora irteera Alkartasunaren eskutik

Alkartasunak ekainaren 8rako irteera antolatu du Bilbora. Irteera 08:30ean egingo da eta Elorriion geldituko dira gosaldia eta herria bisitatzeko. Bazkaria Bilboko Montenegro jatetxean egingo dute eta ondoren hiria ikusteko aukera izango da. Alkartasunako kideek 20 euro eta besteek 23 euro ordaindu beharko dituzte. Izen ematea biltokian bertan.

ANOETA ▶

Enpresa txikientzako ikastaroak

Batez ere mikroenpresetako —hamar langile baino gutxiago dituztenak— profesionalei zuzendutako ikastaroak egiten ari dira egunotan herriko KZgunean. Gaur, 16:00etatik 18:00etara, *Banka elektronikoa: ordainagiriaren helbideratzea, ordainketak eta kobrantzak interneten* izeneko ikastaroa emango dute. Ikastaro hau guztiz doakoa da.

IBARRA ▶

Alurr, herriko dantzaren historia biltzen

Ibarrako Alurr dantza taldeak 10 urte beteko ditu aurtien. Hori dela eta, material bilteta ari da egiten urrian egingo den kultur asteko ekitaldiarako. Aspaldiko materiala ere topatu dutenez, Ibarako dantzaren historia egitea pentsatu dute, beraz, era honetako materiala duenari deia egiten diete 635 757 048 telefonoan Elirekin harremanetan jartzea.

IBARRA ▶

Soka-dantzarako entseguak hasi dira

Herriko festetan tradizio handia duen soka-dantzarako entseguen hasi dira jadanik. Herriar guztiak, gazte nahiz heldu, animatu nahi dituzte ekitaldi honetan parte hartzea, jende berria erakartzea bultzatu nahi baita. Sokadantzarako entseguak Alurr dantza taldeak Azkuen duen lokalean egingo dira asteazkenero 20:30etik 22:00etara.

ADUNA ▶ HIRIGINTZA

Herrigunea aldatuko duten obrak

Herri erditik doan errepidearen zati bat oinezkoentzako moldatuko da eta bi biribilketa berri egingo dira

IMANOL GARCIA

Aurki hasiko dira Adunako herrigunearen zati bat oinezkoentzako bihurtzeko obrak. Guztiz aldatuko da herriguneko itxura obrak amaitzen direnean. Izan ere, oinezkoak bakarrik ibili ahalko dira Amalkor kaleko bidegurutzetik hasi eta frontoiaren parean dagoen telefono kabinaraino. Tartean, Uztartza eta elizaren arteko bihurgunea dago. «Aspalditik nahi genuen obra hauek egin. Uztartza eta elizaren arteko bihurguneak beti eman ditu ibilgailuentzako arazoak, oso estua baita kamioiak pasatzeko», adierazi dio Hitzari Arantxa Aburuza alkateak.

Beste arrazoi nagusia herrigune guztia pixkanaka oinezkoentzako egokitzeko nahia da. «Herri erdian ibilgailurik ezin sartzeta eta oinezkoentzako bakarrik izatea bizi kalitatea ekartzen du», azaltzen du Aburuza. «Beste lasaitasun bat ematen du eta bai umeak eta bai adinekoak lasaia ibiltzeko aukera ematen du». Horrela, aipatutako ibilbide guzti hori galtzada-harriz ipiniko dute, eskola aurrean dagoenarekin eta Segotegi etxeko plaza aurrean dagoenarekin bat eginez.

Galtzada-harriez gain, itxura aldatzea nagusia egingo diren bi biribilketa beharriak



Bi biribilketa berri egingo dira: udaletxeko ondoko bideak eta Amalkor kaleak bat egiten duten lekuan —ezkerrean— eta Amalkorren hasieran. i.g.



izango dira. Bata, Amalkor kalearen hasieran eta bestea udaletxe ondotik doan bidea eta Amalkor bidea elkartzeko diren bidegurutzeak.

Aurrekontu garrantzitsua

Lanak esleitzeko lehiaketa abian jarri zuen Udalak eta bost enpresa aurkeztu dira. Orain Udalak esleipenduna erabaki behar du. Obrak lehenbailehen hastea nahi dituzte, abendurako amaituta egon behar baitute Foru Aldundia- ren diru laguntza jasotzeko. Bestalde, abuztuan, herriko festen garairako etenaldia egingo da. Horrela, festak obrarik gabe gozatzeko.

Aurrekontu handia dute obra hauek. Udalarentzat «asko suposatuko du ekonomikoki», adierazi du Adunako alkateak. Lehiaketan zehaztutako kopurua 240.000 eurokoa (BEZa aparte) da, hots, lehengo 40 milioi pezetan.



Uztartza eta elizaren arteko bihurgunean ibilgailuek ez dituzte arazorik izango obrak amaitu eta gero. i.g.

PLAZA ETXEBERRI
JATEXEA
Sukaldari eta kamarerak
behar ditugu lehenbailehen
635 752 929 (Amala)
ZIZURKIL

ANOETA ▶ GAZTERIA

Ekitaldi ugari antolatu dituzte Gaztetxearen 6. urteurrena dela-eta

Diapositiba eta DVD emanaldia, afariak, kontzertuak, mus jokia, txirrisklas festa eta antzerkia beteko dute agenda



Iaz bezala aurten ere ariko dira Izeba Pilaren Ilobak taldekoak Gaztetxean urteurrena ospatzen. HITZA

ERREDAKZIOA

Anoetako Gaztetxeak 6. urteurrena du aurten. Hori dela-eta ekitaldi ugari antolatu ditu, datozen egunetan garatuko direnak. Gaur hasi eta igandera bitarte musika, bazkaria, afariak eta jokoak izango dira nagusi «gazteen bilgunea izan nahi duen txokoan». «Ilusio handiz» antolatu dituzte ekitaldi hauek guztiak eta haur, gazte eta heldu, anoetar zein Tolosaldeko edozein herritarrei gonbitea luzatu nahi diete.

Musikak beteko ditu gaueko emanaldiak eta Zein, Itaka—Zumaikoak—, Izeba Pilaren Ilobak eta Deskontrol—Arrasatekoak— taldeen kontzertuak eskainiko dira ostiral eta larunbat gauean, antzerkiarekin batera.

Gaztetxeako kideek sei urte hauen nondik norakoen balorazioa egin dute, ospakizun honen aurrean; «hasieran lokal bat gazteok guztiz kudeatzea berria izango bazen ere, urteen poderioz, ikasten goaz, izan ere denbora aurrera doa isil isilik», adierazi dute.

«Ttipi-ttapa lau horma her-

tsiz osatua dagoen lokalari bizi pixka bat» ematen ari direla esan dute Gaztetxeok, horrela «eguneroko lanean gazte irudimenari tokia eginez» eta, antolakuntza eta autokudeaketan oinarrituz, gaztetxea eta gazte asanblada erne jarritz. Hala ere, gaztetxea bezalako txoko bat aurrera eramateko ezinbestekoa ikusten dute, gazteen arteko mugimendu bat egotea. Non bertan eztabaidatu, amestuz, irudimena landuaz, eginez, ... gauzak aurrera eraman daitezkeen.

Urte honetan ere zenbait gauza egin dituzte; gazte eguna, kontzertuak, Gabonetan kantari irten, AHTaren aurkako lana, Udalaren «jarrera antidemokratikoa» salatzeak lana, hitzaldiak, ... eta honela heldu dira beraien hurrengo erronkara, Gaztetxearen 6. urteurrenaren ospakizunera, alegia.

Antzerkia, etxeko ekoizpena

Aipamen berezia merezi du, halaber, larunbat gaueko saioan Anoetako gazteek eskainiko duten 4. antzerki emanaldiak, non Gaztetxeok bertako jende-

ak prestatu dituen emanaldiaren xehetasun guztiak, gidoitik hasita interpretazioraino. *Barrenak agerian* antzezlanaren aurkezleak Ibon Artola, Izaro Azurmendi, Egoitz Iñurruta, Julen Iztueta, Aiora Mujika, Gorka Otxoa-Aizpurua, Iraitz Peñagarikano, Oihane Perez, Alazne Ruiz, Maialen San Sebastian, Maddi Sarasola, Iñar Sastre, Eneritz Urkola, Alaine Zubeldia eta Leire Zumeta dira.

Lana zazpi zatitan banatuko da: sarrera, *Ke lujo*, *Kiromantzidxa*, literatura tertulia, ispilua- ren ipuina, hiru olerki — *Autobusean*, *Inork agintzen ez dimalako* eta *Zelai berdeak*— eta lur-jabea.

Musika, olerkia eta antzerkia, hiruak nahastuko dituzte antzezlanean. *Elgeta* abestiko trikitixaren atzean Atxagaren eta Sarriren hitzak harilkatuko dituzte; *Kiromantzidxa* olerkian, sorgin batek Sarriren iragan eta etorkizuna irakurtzen ditu haren esku aurrean, musikaren errotioan; aktoreen hitzak euskal literaturako hitzak dira, hitz ezagunak, behin eta berri ere errepikatutakoak, esaten ez

AMEZKETA ▶

‘Elephant’ filmak irekiko du zine saio berria

Aurreko lau filma emanaldien arrakasta dela eta, hilabetero errepikatuko dute

N. LATABURU

Duela bi aste amaitu zen Ametzak taldeak Amezketan antolatu zuen lau filmeko zine saioa. Parte-hartze handia izan zen eta haziz joan zen astez aste. Piztutako interesa galdu ez dadin eta honelako ekimenen aurrean partaidetza mantendu ahal izateko, hilean behin beste saio bat antolatzea erabaki dute.

Honela, hilabete bakoitzeko lehenengo ostegunetan, 21:00etatik aurrera balioantzeko gelan, zine saio bat eskainiko da, txokolatea eta bizkotxoekin.

Gaurko filma 2003. urtean Gus Van Sant zuzendari estatubatuarrek eginiko *Elephant* izango da. 81 minutuko iraupena du film luzeak, eta hainbat sari eskuratu ditu, besteak beste, 2003ko Cannes-eko zinemaldian filma eta zuzendari hobereenen urrezko palmorriak. Filmak Columbine institutuaren jazo-tako erahilketaren berri ematen du, bi nerabek eginiko. Ameriketako Estatu Batuetako institutu honetako ikasle- en ohiko egun bat izan zitekeena ametsgaizto nola bilakatzen den kontatzen du drama honek.

Kritika oso onak jaso ditu *Elephant* film luzeak eta obra «argia eta jakintsua» dela esan dute adituek. Gus Van Sant zuzendariak gai konplexu hau maisutasunez jorratzen duela diote zazpigarren artean adituek direnek.

EGITARAUA ▶

GAUR

19:00. DVD emanaldia: Iruñeko Euskal Jai Gaztetxetik irtenaraztea.
19:30. Ibon Artola anoetarraren hitzaldia. Kubako iraultza sozialista, ikuspuntu marxista batetik aztertua.

BIHAR

19:00. Txupinazoa.
19:30. Sagardo dastaketa
21:00. Gazte afari popularra.
23:00. Kontzertua; Zein? eta Itaka (Zumaia) taldeekin.

ETZI

12:00. Patata tortila lehiaketa herrikoia. Ondoren bazkaria.
17:00. Joko eta jolas herrikoiak. Ondoren poteoa herriatik zehar.
21:00. Afaria.
22:30. Gaztetxeok jendeak eginiko antzerki emanaldia. Ondoren kontzertuak: Izeba Pilaren Ilobak eta Deskontrol (Arrasate) taldeak. Gauean zehar txirrisklas festa.

IGANDEA

17:00. Mus txapelketa herrikoia. Saria arkume bat.

diren hitzak ahaztu egiten omen direlako.

Musika, olerkia eta antzerkia nahasturik eta hiruen aitzakian parodia, eta parodiarekin kritika. Gizakion handinahiari egiten zaio kritika *Ke lujo*; literaturari eta oro har gaur egungo artearen itsutasunari kritika, berriz, *Literatur tertulian*; eta gizarte modernoaren jabetza grinari kritika *Lur-jabean*. Antzerkiaren antzerkia ikusteko aukera izango da *Ispilua- ren ipuinan*: hezurak, barrenak, agerian utziko dituzte.

TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

ESKAINITZA PARTZIALA: 'MEKANIZATUA'
(Erdi mailako ziklo formatiboa)

- **Zuzendua:** Pertsona helduei, Ziklo formatiboa malgutunez ikasteko moduan egokitzea.
- **Baldintzak:**
 - Titulazio egokia eduki (DBH, FP1)
 - 21 urte baino gehiago izan edo 2 urteko lan esperientzia edukitzea.
- **Izen-ematea (telefonoz):** 2005eko maiatzaren 10 baino lehenago

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSALDEA
E-mail: idazkartzita@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi. Medikua: 68 33 61

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona. Anbulat.: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitza autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Azpiroz, M.L. Amaro
auzunea 9 (Tolosa).

943 67 51 18

Larraia, M.I. Elbarren 95 (Leitza)

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko
hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko
hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Txakurra. Husky eme bat galdu da. Txuri-beltza, begi urdinekin, 6 urtekoa. Deitu 617 639 049a.

BELAUNTZA ▶ POLITIKA

Udalak erantzuna eman die Sustraiak-ek egindako adierazpenei

Herriko tabernaren auzian sententziarik ez dutela oraindik jaso eta idazkaria aukeratzeko eskubidea zutela esan dute

IÑIGO TERRADILLOS

Herenegun ohiko bilkura izan zen Belauntzako Udalean. Gai zerrendan, aurreko akten onarpena, 2005. urterako aurrekontuen onarpena, Ramon Lopetegiren lursailari buruzko erabakiak, arau subsidiarioen errebisioaren esleipena onartzea, erroldaren errebisioa, Estanislao Otaegik zinegotzi kargua uztearen proposamenaren onikusia, langilegoaren egutegia onartzea eta herri ekimenaren eta erreferendumerako proposamena osatu zuten besteak beste eta denak onartu ziren erreferenduma egitearena izan ezik.

Sustraiak herri plataformak aurkezturko bi mozioak, AHTRI aurre egitearena eta euskal presoen borrokaldietan Udalak bat egitearena ere onartu ziren.

Bestalde, herriko tabernaren inguruan arduradun izandakoak jarritako salaketaren inguruan hitz egin zuen Edurne Ar-



Herenegun Belauntzako udaletxean egin zuten ohiko bilkura. i.t.

belegi alkateak. Ez dutela oraindik sententziaren berri izan azaldu zuen, eta itxi bazen hainbat klausula bete ez zituelako izan zela adierazi zuen.

Idazkari berriaren aukeraketa ere azaldu zuen alkateak, «eskubidea duela udalak azterketara azaldu ez zen edozein aukeratzeko aproposa dela iruditzen bazaio» esan zuen. Sustraiak plataformak zerrendan bigarrena zena aukeratzeko

egokiago ikusten zutela erantzun zuten.

Amaitzeko, Sustraiak plataformak Ramon Lopetegiren lurren negoziazioan diru kopuru handiegia adostu zutela, eta ez zeudela ados esan zuen, eta alkateak lur horiek bereziak direla udalarentzat eta adosturiko kantitatea bidezkoa eta egokia izan dela iruditzen zaiela erantzun zuen, herenegun egindako ohiko batzarrean.

IBARRA ▶

Ibarrak Peñucas-en aurka jokatuko du gaur

Hil ala bizikoa izango du gaur Ibarrak; zaleen babesa beharko du taldeak

I.TERRADILLOS

Gaur, 20:00etan jokatuko du Ibarra areto futbol taldeak ligako liderra den Peñucas-en aurka.

Partida garrantzitsua da Ibarrentzat, hil ala bizikoa, izan ere, denboraldia dute joan. Irabaziko balute, lehenengo A mailan mantentzeko urrats handia emango lukete, eta galduko balute, berriz, mailaz jaisteko arrisku handia izango lukete. Lan zaila dute, beraz, Cesar Rocaren mutilek Peñucas dena ematera etorriko baita garaipenak igoera bidean jarriko bailuke.

Ibarrari hiru partida baino ez zaizkio geratzen; gaurkoa, datorren larunbatean azken postuan dagoen Salcedo kantabiarren artekoa, eta azkena, etxean Burlataren aurka. Ibarrek gaurko partida irabaztea beharrezkoa dute, eta baita datorren larunbatekoa ere. Hori gertatuko balitz Burlataren pare jarriko litzateke etxeko taldea eta Belabietan jokatuko den azken partidako emaitzak erabakiko luke nork jarraituko duen lehen A mailan.

Albeldan galdutako partidaren ondoren Ibarakoak lur jota bueltatu ziren etxera. Cesar Roca entrenatzaileak egoera nahiko zailan daukela esan zuen eta gaur jokatuko duten partidaren inguruan «partida oso zaila izan arren saiatuko gara eta gogor egingo dugu lan», adierazi zuen. Bestalde, «bigarren bueltako partida guztiak irabazi ditugu eta bat berdin», gehitu zuen, beraz itxaropena ez du galdu behar Ibarako taldeak.

Gaurko partida ezohiko egun eta ordu batean jokatzen bada ere inoiz baino gehiago beharko dute jokalariek zaleen laguntza eta babesa. Partida hasi aurretik eta bukatu bitarte animatu behar dira gaur Ibarra areto futbol taldekoak, norgehiagoka irabazten ari badira eta zer esanik ez emaitza aldekoa ez bada.



Bizikleta gainean jolasean

LIZARTZA ▶ Lizartzan Eskolaren XVI. Astea ari dira ospatzen. Atzo bizikleta irteera egin zuten eskolako helduenek, eta bitartean txikiak oka bizikleta jolasean aritu ziren. Oka jokoaz

baliatuz eta dado erraldoi batekin suertatzen zen zerbakiaren arabera proba bat edo beste egin behar zuten taldeka eta bizikletaz. Arratsaldean, jaialdia izan zen euskaltegian. i.t.

LEITZA ▶ GIZARTEA

M-22: harrobien inguruan herri kontsulta egiteko aukeratutako eguna

Hautes-legeei jarraituz, bihar hasiko da hamabost egun iraunen duen informazio kanpaina; Leitzan harrobirik bai ala ez? galdera izanen da erantzun beharrekoa

JAIONE ASTIBIA

Maiatzaren 22an egingen da Leitzan harrobien inguruko herri kontsulta.

Behin Nafarroako Gobernuko Leitzako Udaleria baimenaren jakinarazpena iritsita, alkate-ebazpenez egin zuten herri kontsultaren deialdi publikoa, bai data zehaztuz, galdera berriz ere zein izanen den argituz eta gaiari buruz informazioa banatzeko epearen data ere zehaztuz. Hori guztia egiteko eta martxan jartzeko, deialdian bertan aipatzen denez ere,

«urriaren 28ko 27/2002 Foru Legean zehazten den prozedura segituz», egingen dute «orain arte bezala».

Horrela, bada, arestian aitatu den datan, maiatzaren 22an egingen da harrobien inguruko herri kontsulta. Egun horretan, ohiko hauteskunde-egunetako prozedura beretsua izanen omen da, udaletxetik bertatik igorri duten informazio-orriaren arabera: «Bozka emateko mahaia, betiko lekuetan» egonen dira, alegia, Erleta eskolako gimnastika gelan bi eta udaletxean, beste bi; eta herri-

tarrek ohi duten mahaian eman ahal izanen dute beren bozka. Horren harira, oharrak dionez, bozka emateko eskubidea, «apirilaren 18a baino lehen Leitzan erroldatutako adin nagusikoek» izanen omen dute, bozkatzerakoan («nortasun agiria») erakutsiz. Hauteskolek, ohiko ordutegian egonen dira irekita.

«Leitzan harrobirik bai ala ez?» galderari erantzuteko aukera, beraz, hortxe izanen dute leitzarrek: «ez» edo «bai» hitzen ondoko kuadrotxoa markatu, bozka-lekuetan eskura

egonen diren papertxoetan eta ontziatar botatz.

Aldez aurreko bozka

Aditza eman dutenez, hautesleek, «aldez aurretik botoa emateko aukera» ere izanen omen dute, bestalde. Hori, Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen aurrean egin behar omen da, Iruñean, maiatzaren 15etik 21era bitartean, aurrez interesatuek «udaletxean, udal-eroldan dagoela eta legeak aipatzen dituen baldintzak betetzen dituela dioen

ziurtagiria» jaso eta egun horietan, «hauteskunde batzordeko idazkariarekin harremanetan jarri beharko du, 620 76 13 23 telefono zenbakira deituz, 9:30etik 14:30era bitartean», zehazten denez.

Eta hauteskunde prozedura guztiek bezala, herri kontsulta honetarako ere, dagokion informazio kanpaina zehaztu dute: 15 egun iraunen ditu.

Informazio kanpaina

Maiatzaren 6an, bihar bertan beraz, hasiko da eta 20etan 24:00etan bukatu, 21a, herri kontsultaren bezpera, erreflexio egun izateko izendatuta baitago legez.

Kanpaina horretan herriko taldeek parte hartu dezakete eta baita, Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzaileak ere, gai honen inguruan beren iritzia plazaratzeko aukera izanez. Udalak bere aldetik informazioaren zabalkunderako baliabideak eskura jarri behar dizkie.

Hurrengo egunetan beraz, izanen da zer jakin eta ikasia.

PILOTA ▶

Elgetako txapelketan irabazi egin dute Leitzaldeko bi ordezkariak, aurrera joz

Larunbat honetan hasiko da 17:00etan Herriarteko Txapelketa Leitzako Amazabal pilotalekuan: Aurrera Lizarrako San Migelen aurka

J. ASTIBIA

Nahiz Aresoko eta nahiz Leitzako pilotariak Euskal Herrian zehar han eta hemen jokatzeko ari diren txapelketetan dabilta adin mota guztietakoak, egun batean bai eta bestean ere bai, pilota eskuan hartu eta eginahaletan.

Batzuk aipatzekotan, esate baterako aipatzekoa da, Elgetako eskuzko pilota txapelketan helduen mailan, ostiralean partidu bana jokatu zutela, Mikel Olazabal aresoarrak eta Ibai Bengoetxea leitzarrek, eta biek hala biek ere, garaipena eskuratu zutela, hurrenez hurren Etxeberriaren eta Urrestarazuren aurka, 22-5 eta 22-16eko emaitzekin. Biak txapelketa honetan aurrera jarraitzeko moduan dira, beraz, eta heldu den astean izanen dute hurrengo kanporaketa.

Modu berean, Errekako, Usurbilgo, Urretxuko, Herrera, Getariako, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK antolatuta-



Mikel Olazabal pilotari aresoarrak Elgetan irabazi zuen. J. ASTIBIA

koa txapelketetan ere badira eskualdeko ordezkariak.

Herriartekoa hastear

Eta orain, larunbat honetan, 17:00etan, Herriarteko Txapelketa ere hasiko da Leitzako Amazabal pilotalekuan.

Lehen saio honetan Leitzal-

deko Aurrera, Lizarrako San Migelen aurka ariko da. Jasotako berrien arabera, honako hauek ariko dira: umeetan, Julen eta Anartz Olano; infantiletan, Oihan Alduntzin eta Aritz Sagastibelza; gazteetan, Mikel Iriarte eta Zuhaitz Beloki; eta helduetan, Ibai Bengoetxea eta Iñaki Iparragirre.



Presoen aldeko ekintza

LEITZA ▶ Pasa den ostiralean *Presoak borrokan. Euskal Herrira, orain* aldarria egin zuten, beste behin ere, hamarka herritarrek egindako ekitaldian. Plazatik atera zen giza-katea, lehendabizi eta ondoren, jada ohiko den Lopeneko iturrian, elkarretaratzea egin zuten, eskualdeko Txus Goikoetxea, Juanjo Zubieta, Xabi Golderaz eta herrian bertakoa den Igor Astibia presoaren irudiak beraiekin zituztela. J. ASTIBIA

hilberriak ▶ eskelak hartzen dira: 19:00ak arte • 943 65 56 95 • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

† Pedro Altuna Armendariz jauna



Atzo hil zen, Lizartzan, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goiak bego—

Haren animaren zuzendaria: Iñaki Zubeldia; emaztea: Paula Zinkunegi; seme-alabak: Juan eta Mari Arostegi, Paki eta Iñigo Goya, Iñaki eta Imanole Barandiaran, bilobak: Iñigo, Xabi, Ion, eta Josune, Ander, Aitor, Ane eta Mikel; anai-arrebak: ezkon anai-arrebak; osaba-izebak, ilobak, lehenagusiak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte la GOUR OSTEGUNA, arratsaldeko SEIETAN, Lizartzako Santa Catalina parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Guk-Naigenduena etxea (Elbarrena auzoa)

oharra • gorputz beila Tolosako belatokiak dago

LIZARTZA, 2005eko maiatzaren 5ean

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Gaztetxearen 6. urtemugan, DVD emanaldia Iruñeko Euskal Jai gaztetxearen desalojoaz. 19:00etan Gaztetxean bertan.

Alegia. Puntu Berde kamioia hondakinak jasotzeko izango da 9:00etatik 11:00etara plaza nagusian.

Elduain. Mus txapelketa egingo dute larunbatean eta maiatzaren 14an 22:00etan Urdelar biltokian. 10 euro ordaindu beharko da izena emateko eta bihar izango da azken eguna.

Tolosa. Euskarazko webgunek laguntzeko deialdia atera du Udal Euskara Zerbitzuak. Epea: ekainak 30. Informazioa: 943 65 44 66.

Tolosa. Eusko Jaurizarriak lokal komertzialetan inbertitzeko laguntzak ematen ditu. Informazioa eta eskaerak 943 16 06 73 telefonon.

Tolosa. Eskualdeko ataundarrek afari bat egingo dute hilaren 27an Fronton jatetxean 20:30ean. Izen-ematea, bertan (943 65 29 41).

Tolosa. Aralarko Adiskideak elkarteak Tolosa-Ernio-Tolosa lasterketa antolatu du maiatzaren 14an. 20 km eta 1.000 metroko desnibela dira. Izen-ematea, Tolosaldean Tourren (Santa Maria plaza, 943 69 74 13) 10 eurotan.

Tolosa. Amaroako auzo elkarteak Araxesko VII. Mendi Itzulia antolatu du maiatzaren 15ean. Izen-ematea, elkartearen bertan edo egun berean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Luis Maria Nuñez 10 koadro jubilatuen tabernan.

Hernialde. Merxe Etxeberria hernialdetarraren olio-pinturak ikusgai daude Ostatu tabernan.

Tolosa. Calcutako bizimoduari buruzko argazki erakusketa Aranburu Jauregian. Calcuta Ondoan eta San Bartolome misio taldeak antolatuta.

Tolosa. Lurdes Perales tolosarraren pintura erakusketa Lanbroa tabernan. 18 lan dira, olioak eta akuarelak, gehienbat paisaiak (Tolosa, Donostia, Orio, Nafarroa, Araba), baina baita erretratoak ere.

Tolosa. Miren Gonzalez eta Matxin Labaien pintore tolosarren koadroak daude ikusgai Aranburu Jauregian.

Tolosa. Omar eta Marcos pintore kubatarren erakusketa



Iñaki Linazasororen argazkiak ikusgai

TOLOSA ▶ Iñaki Linazasoro idazle, hizlari, bidai gidari eta alkate ohiaren heriotzaren lehen urtemugan, Udalak bere omenezko erakusketa bat jarri du egun hauetan Kultur Etxeko 1. pisuan. Iaz Aranburu Jauregian jarri zituen argazki ederretako batzuk aukeratu dituzte horretarako. Bihar izango da erakusketa txiki hau ikusteko azken eguna. Irudian, Inauterietan eskainitako panela ikus daiteke. J.SAIZAR

Fronton kafetegian. Kubarako elkartasun erakusketa da.

Tolosa. Jose Antonio Gorgojoren koadroak Sorron dendan.

HERRI URRATS

Aiztondo. Aiztondo zerbitzuen mankomunitateak autobusa antolatu du igandean

Senperera Herri Urratsera joateko. Izen-ematea, 943 69 39 30 telefonon.

Belauntza. Udalak autobusa antolatu du. 8:30ean aterako da Andreseneko bidagurutzetik. 6 euro ordaindu beharko.

Leaburu-Txarama. Udalak autobusa antolatu du. 8:15ean aterako da Txaramako Papelerako geltokitik eta 8:20ean Leaburuko Arbolako geltokitik. 6 euro ordaindu beharko da.

Tolosa. Autobusak antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak. Izen-ematea, 17:00etatik aurrera egoitzan (Nafarroa etorbidea 6, behe).

HITZALDIAK

Amezketak. Ariketa fisikoaren onurak eguneroko bizitzan balioanitzeko gelan 16:00etan. Hizlaria Etxitxu Unzain fisioterapeuta izango da. 3. adinekoek zuzenduta bereziki.

Tolosa. Egipto hitzaldia emango dute Kultur Etxean 19:30ean. Nazareth Zentroak antolatuta, Kuxaren laguntzaz.

Tolosa. Gazteak eta lana, Tolosaldea Garatzen-eko Leire Otaegi eta Teresa Ceberioeren eskutik: Langai eta INEMen funtzionamendua, nola prestatu kurrikuluma, lan munduratzearan ibilbide desberdinak, Internet bidez lan poltsa... Kultur Etxean 20:00etan.

IKASTAROAK

Tolosa. DYA Gipuzkoako sorosle eta sorospen ikastaroa antolatu du Jesusen Alaben ikastetxean hilaren 16tik ekainaren 3ra arte, astelehenetik ostiralera 19:00etatik 21:00etara. Izen-ematea, 943 46 46 22 telefonon, 60 eurotan. Plaza mugatuak.

Tolosa. Udak Musika Eskolan datorren ikastarorako aurrematrikula egiteko epea zabalik dago, hilaren amaiera arte, 10:00etatik 13:00etara.

Tolosa-Villabona. Haldun Heziketa Iraunkorrean datorren ikasturterako aurrematrikula egiteko epea zabalik da. **Zizurkil.** Maiatza Saltsan kultur egitarauaren baitan **Sukaldaritza aurreratua modu errazean** ikastaroa egingo da Urkamendi elkartearen, Andoni

Arabaolaza irakaslearekin. Izen-ematea bihar amaitzen da, udal bulegoetan.

IRTEERAK

Alegia. Lourdesera egingen peregrinazioarekin batera, parrokiak autobusa antolatu du hilaren 21 eta 22rako. Bidaia eta hotela pensio osoan 115 euro dira. Izen-ematea, parrokiaren.

Belauntza. Zumaiaiko Zelai Talasoterapiara irteera egingo da maiatzaren 28an 9:30ean Andreseneko bidagurutzetik aterata. 20 euro ordaindu beharko da. Prezio honetan bidaia, erlajazio tratamendua eta bazkaria sartzen dira. Kultur Etxean maiatzaren 20a baino lehen eman behar da.

Tolosaldea. Irazki kulturazindun elkartearen Zugarramurdiko kobazuloetara irteera antolatu du maiatzaren 12rako. Bazkaria Baztan hotelean izango da. Izen-ematea, elkartearen (32 euro, bazkideek 29 euro).

ZINEMA

Amezketak. Elephant balioanitzeko gelan 21:00etan. Bizkoxoa eta txokolatea banatuko da.

HI, GAZTE! ▶



Aldizkaria. Hi, gazte!.

Zenbakia. 14.a.

Orrialdeak. 16.

Tirada. 2.500 ale.

Gai nagusia. Kazkabarra aisialdi taldea.

Beste gaiak. Eskulan tailerra; gazte topagunea; gazteak eta familia; fantasia erotikoen funtzioa; berri bitxiak; lehiaketa; diskoliburufilm; agenda...

Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea, Udaleko Gazteria Sailarentzat egindako lana.

▶ Nafarroa etorbidea 6, behe (Tolosa)
▶ 943 65 50 04

▶ higazte@euskalerrria.org

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Eñaut Larrea (Ikaztegieta).

Gaur 9 urte. Aupa bihotz handiko pilotari txiki. Gurasoen eta Uxueren partetik.

HITZA,
zorion agurren
tarta

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behe
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!